Gaskoinerak baditu bere dialektoak: biarnoera Biarno aldean mintzatzen dena, bordelera Bordel aldean, konbenera Kondomeko bailaran, landera Landetan, armainakera Armainak deritzan euskaldunena, eta girondera Gironda aldean. Erromantzea izan arren, baditu euskaratik hartutako hitzak, edo hobeto esanda, sustraiak. 1100 urte inguruan, eta gaur ondo ezagutzen ez ditugun arazoak direla eta, gaskoi asko eta asko Hego aldeko Baskoniara jeisten hasi ziren, gaskoien hiri eta herri mordoxka sortuz. Badirudi Donostia berak oso gaskoin kopuru haundia izan zuela, eta frogarik onena udalak gaskoieraz ateratako bando eta agiria. Pasai Donibane eta Lezo oso Gaskoin egoitza haundiak izan zirelarik. Gaur gaskoierazko toponimoek: Urgull, Polloe, Poyuelo, Miramon, Aiete, Mans, Puyo, Morlans, Sagues, Belok, Monpas,... eta gure artean dauden gaskoin abizenek: Artigas, Bandres, Trezet, Arzak, Molet, Pollon,... beraien oroimena dakarkigute etengabeki gogora.

3.— Behin Landak aldera bidaiatxoren bat egiteko pronto nengoela, bailara hartako mapa batekin egin nuen topo, eta segitzeko bidea prestatzen hasi nintzeanean, zenbait euskal itxurako herri eta leku izenekin aurkitu nintzen. Harrituta, bertako toponimia iker-tzeari ekin nion, eta baita Gaskuña edo Akitania oso-ko historia eta izakerari buruzko zenbait libururen irakurtzeari. Federiko Krutwig-en «Vasconia» liburuak eman zizkidan pistarik gehienak, eta berari esker ezagutu dut zein haundia den benetean euskaldu-



nen herria, gure euskal aberri laztana, eta berari esker ulertu dut «Zapiak Bat» deritzana, gure aberriaren giltza edo sintesia dela, besterik ez; Benetako Euskal Herria askoz zabalagoa bait da izatez eta eskubidez.

Mapa eskualdez eskualde aztertu ondoren, zenbait euskal itxurako toponimo bildu nuen, eta zenbait aldaketa fonetikoren bitartez haundiagotu nuen aipaturiko toponimoen euskal itxura. Gehien erabilitako aldaketa fonetikoak, frantseserazko bukaerei dagozkienak izan dira, honako hauek normalenak izan direlarik: —et/—eta // —sse/—tz // —c/—tz // —ise/—itz // —ons/—ontz // —es/—ez // —ez/—ezt // —on/—oe // —ut/—uta // —es/—ats // —ce/—ats // —é,—e/—a // —ost/—ots // —an/—ain // eta —ons/—ontz.

Bestalde, aipatu beharra dago, zenbat eta hego alderago eta zenbat eta mendebalderago, euskal itxurako toponimoen kopurua ugaritzen doala, gure gaurko Euskal Herri euskalduna, gure toponimiaren ardatza bailitzan. Hona hemen orain nik aurkituriko euskal itxurako toponimoak, frantseseraz idatzirik, eta ondoan aipatutako aldaketa fonetikoak aurrera eraman ezker sortutako izenak. Beste zenbaitetan nik azaldutako izena ez da inolako aldaketa fruitua, Federico Krutwig-ek bere liburuan eskeinitako euskal izena baizik. Kasu hauetan, euskarazko izenaren atzetik (F.K.) irakur ahal izango da bere iturria garbi utzi nahian.

## ATURBE (= Tarbes) (F.K.) ALDEAN

Séméac.....	Semeats
Mascaras.....	Maskarats
Lasbordes.....	Lasborda
Bastourra.....	Basturra
Ibos.....	Ibots
Coarraze.....	Koarratze
Lagoin.....	Lagoin
Lansac.....	Lansats
Oléac.....	Oleats
Lucarré.....	Lukarra
Anoye.....	Anoia
Lasserre.....	Latzerra
Orignac.....	Orinats

## AKHITZE (= Dax) ALDEAN

Izosse.....	Izotz
Gourbera.....	Gurbera
Narrosse.....	Narrotz
Mimbaster.....	Minbazter
Auribat.....	Auribat
Lahosse.....	Lahotz
Midouze.....	Midutz
Lesgor.....	Lesgor

Estirac.....	Estirats
Maure.....	d Maure
Abere.....	Abere
Lembeye.....	Lenbeia
Mendousse.....	Mendutz
Uragnoix.....	Urañux
Armentieux.....	Armentiez
Artagnan.....	Artañan
Soreac.....	Soreats
Abos.....	Abots
Sarriac.....	Sárraits
Bicave.....	Bikabe

Chardeo.....	Txardeo
Lizou.....	Lizu
Marrein.....	Marrein
Labadie.....	Labadie
Lagrabiche.....	Lagarabitz

## OLORDE (= Oloron) ALDEAN

Escou.....	Esku
Escout.....	Eskuta
Layou.....	Laiu
Aran.....	Aran
Arriu.....	Arriu
Eslayou.....	Eslaiu
Lescar.....	Leskar

## LURDE (= Lourdes) ALDEAN

Biscaye.....	Bizkaia
Ossen.....	Otzen

Ourey.....	Urei
Ourdon.....	Urdoe
Artigues.....	Artigats
Barry.....	Barri
Visker.....	Bizker
Arrayou.....	Arraiu
Gazost.....	Aukun
Arragnat.....	Arrañat

#### MORCENX ALDEAN

Garrosse.....	Garrotz
Arengosse.....	Arengotz
Lesbordes.....	Lesborda
Escource.....	Eskurtze
Jouanicto.....	Juanikot
Onesse.....	Onetz
Labadie.....	Labadie

#### ARCACHON ALDEAN

Peyot.....	Peiot
Rue Haïtza.....	Haitza Kalea
Arnouton.....	Arnutoe
Argilet.....	Argileta

#### PABE (= Pau) ALDEAN

Uzein.....	Utzein
Auga.....	Auga
Sendets.....	Sendets
Uzan.....	Uzan
Andoins.....	Andointz
Espéchède.....	Ezpetxeda
Arrien.....	Arrien
Gabas.....	Gabats

#### BIGORRA (= Bigorre) ALDEAN

Ordizian.....	Ordizain
Uzer.....	Uzer
Batsére.....	Batsera
Asté.....	Aste
Arrodets.....	Arrodets
Laborde.....	Laborda
Labastide.....	Labastida

#### CAPBRETON ALDEAN

Hossegor.....	Hotzegor
Biarrotte.....	Biarrota
Bayonnais.....	Baionaitz

#### SABRES ALDEAN

Labrit.....	Labrit
Harribey.....	Harribei
Garein.....	Garein

#### MIMIZAN ALDEAN

Biscarrosse.....	Bizkarrotz
Gastez.....	Gaztetz

#### TOLOSA (= Toulouse) ALDEAN

Muret.....	Murueta (FK)
------------	--------------

#### AUTX (= Auch) ALDEAN

Elauze.....	Eluza (FK)
Aire.....	Atura (FK)
Lectoure.....	Latsura (FK)

#### BORDELE (= Bourdeaux) ALDEAN

Auquin.....	Aukin
Labarde.....	Labarde
Libardac.....	Libardats
Garonne.....	Garona
Cadarsac.....	Kadarsats
Bouscarrut.....	Buzkarruta
Genissac.....	Genizats
Libourne.....	Liburna
Lesparre.....	Lasparren (FK)
Blaye.....	Blaia
Lafite.....	Lafite
Artigues.....	Artigats

#### LANGOE (= Langon) ALDEAN

Larreole.....	Larreola
Uzeste.....	Utzeste
Illats.....	Ilats

#### MONT DE MARSAN ALDEAN

Gabarret.....	Gabarreta
Labrise.....	Labritz
Arthez.....	Arthetz
Bascons.....	Baskointz
Auzan.....	Autzan

Honekin nik ez dut ezer demostratu nahi, ezin bait da holako likubrazioekin inolaz ere ezer demostratu, baina bai begi bistara azaldu iparraldeko Baskonian, Gaskuñan edo Akitanian dauden euskal itxurako toponimoak, ez bait dira ez bat eta ez bost, askoz gehiago baizik. Agian egun batean, zer edo gehiago jakingo dugu gure anaiak diren gaskoinei buruz, bitartean itxoin beharko honelako gogoetak eginez.


#### Zabarre

#### ERABILITAKO ITURRIAK:

- 1.— **KRUTWIG, Federiko.**— «*Vasconia*», 1963
- 2.— **MURUGARREN, Luis.**— «*Donostia*», 1978

# Los Molinos en Lezo

## LEZO



Según el «Diccionario Histórico-Geográfico del País Vasco» (1) de 1802, había en aquel entonces dos molinos harineros funcionando en Lezo. La misma cifra se calcula en 1826 (2), 1845 (3) y 1862 (4).

Tras nuestras investigaciones hemos logrado obtener datos sobre los molinos ERROTAZAR, GOIKO-ERROTA y BEKO-ERROTA.

### ERROTAZAR

El B.O.G. de 1923 (5) nombra al molino ERROTAZAR, al igual que lo hace el de 1924 (6).

En el B.O.G. de 1927 (7) se habla de la «casa derruida denominada ERROTAZAR». Hoy desaparecida.

**SITUACION.** Se alimentaba del «Parraguirre-errika», junto al antiguo caserío Zubicho, a unos 300 metros detrás de la Iglesia parroquial, en terreno hoy ocupados por el puerto de Pasajes.

### GOIKO-ERROTA

Molino situado a la izquierda de «Txulotxo-errika».

Eustasio Lopetegui de 80 años (20-I-81), del caserío Erreketxe de Lezo, nunca lo conoció como molino. Sólo se mantiene el nombre en el caserío cercano al antiguo emplazamiento del molino, cuyo edificio fue destruido cuando se tomaron sus aguas para los municipios de Lezo y Pasajes, pues «tenía mucha agua». Desaparecido.

**SITUACION:** A unos 100 metros del cruce de carretera de Lezo a Gaintxurizketa, detrás de unos bloques de modernas casas.

### BEKO-ERROTA

Nos aporta los datos el anteriormente citado Lopetegui (20-I-81), aunque él nunca lo conoció en marcha. Se encuentra actualmente desaparecido, y en sus solares se construyó un taller.

Fue erigido a la derecha del «Txulotxo-errika», que lo alimenta.

**SITUACION.** Camino de Rentería a Gaintxurizketa por Lezo, antes de llegar al cruce, a unos 50 metros, junto a la fábrica de conservas de pescado de la Cooperativa de Cofradías de Pescadores de Guipúzcoa (edificio hoy también en ruinas).

(1) **DICCIONARIO HISTORICO-GEOGRAFICO DEL PAIS VASCO. Real Academia de la Historia.** 1802. Editorial a Gran Enciclopedia Vasca. BILBAO. 1968.

(2) **MIÑANO, Sebastián de. DICCIONARIO GEOGRAFICO-ESTADISTICO DE ESPAÑA Y PORTUGAL.** Imprenta de Pierart-Peralta. MADRID. 1826.

(3) **MADOZ, Pascual. DICCIONARIO GEOGRAFICO-HISTORICO DE ESPAÑA Y SUS POSESIONES DE ULTRAMAR.** 1845.

(4) **GOROSABEL, Pablo de. DICCIONARIO HISTORICO-GEOGRAFICO-DESCRIPTIVO DE LOS PUEBLOS, VALLES PARTIDOS, ALCALDIAS Y UNIONES DE GUIPUZCOA.** Año 1862. La Gran Enciclopedia Vasca. BILBAO. 1971.

(5) **BOLETIN OFICIAL DE GUIPUZCOA DEL 9/VII/1923,** pág. 22.

(6) **IDEM DEL 10/X/1924,** pág. 339.

(7) **IDEM DEL 13/VII/1927,** pág. 42.

— **Antxon Agirre Sorondo** — «*Tratado de Molinología*» (Los molinos de Guipúzcoa) (1988)

## LEZOKO KALEGARBITZAILEARENA ETA BESTE ZENBAIT IXTORIO

Lezok, herri haundia ez izan arren, bere sona izan du urteetan zehar, hortarako aitzakirik haundiena, bertan dagoen Santo Kristo famatuaren irudia izan delarik. Hala eta guztiz ere, bestelako aipamen eta erreferentziak han-hemenka aurki daitezke. Honako hauek ideia bat emango digute. Ikus ditzagun.

Idazle eta anarkismo abertzalearen teoriko ospetsua den Mark Legasse lapurtarraren «Las carabinas de Gastibeltza» izeneko liburuaren 33 orrialdean, «Allegro» izeneko atalaren barruan, honako erreferentzi hau irakur daiteke gure herriari buruz:


«Siendo muy joven, mi tío Gaudioso, (...), se vio trastornado por la aventura del barrendero de Lezo. Incorregible distraído, este activo empleado del servicio municipal de limpieza cayó en un letargo ambulante cuando estaba barriendo las hojas muertas en el atrio del Santo Cristo. Escoba en mano y sin parar de barrer, cruzó Gipuzkoa, atravesó la frontera y subió hacia París, dejando pasmadas, a su paso, a las multitudes. Salió de su estado segundo frente al estanque de Luxembourg, donde Victor Hugo le despertó. Fue por mediación del barrendero de Lezo cómo el poeta francés nos conoció y se hizo amigo nuestro. Más tarde, mezclando el nombre de Gastibeltza y el apodo de mi padre con el singular comportamiento de su protegido, Hugo compuso un extraño poema sobre el viento de las montañas que enloquece. En cuanto al barrendero guipuzcoano, murió bruscamente de aburrimiento en la calle Jacob. Mi tío sacó la conclusión de que era perfectamente exacto el adagio que recomienda barrer delante de propia puerta y nunca delante de la ajena. Ahora bien, ésta es precisamente la lección que nuestro pequeño pueblo da al resto de la humanidad. Cada artículo de los Fueros por los que tanto apego tenemos, es una crin de la escoba que hace de nuestro país una tierra que nos es propia».

Oso parabola polita eta benetan bitxia, Legassek paragrafo hauetan egiten duena Lezoko kalegarbitzailearen erratza eta Euskal Herriaren askatasuna gonbarazio zail bezain koloretsu batetan nahastuz. Ondotxo dakigu zein idazle eta pentsalari azkar eta malabarista den gure Legasse, baina zergatik Lezoko kalegarbitzailea sartu honelako parabola batetan? Zer berezia harrapatzen dio Legassek Lezori, bere liburuan modu honetan ager dadin?

Orain bizpahiru urte Maskarada antzerki taldeak moldatu egin zuen Legasseraren liburua, antzesteko moduan ipiniz. Zazpi Euskal Herrietan zehar ibili ondoren fama haundia eman zioten lan honi. Ikus dezagun Susaren bitartez argitaraturiko antzeslan honetan aurreko testuari egindako itzulpen aske, jator eta ederra:

### LAS CARABINAS DE GASTIBELTZA MARC LEGASSE

LA LARGA LUCHA DE LOS VASCOS POR SU LIBERTAD



PROLOGO

### "BELTZA" Y "ALFONSO SASTRE"

«Ttikitandik dudan grina da, aitari Lezoko barrenderoaren ixtorioa entzun nionean sortu zitzaidan. Kontatu al dizuet inoiz Lezoko barrenderoaren mentura? Ba gizon hura oso distraitu omen zen, atarramendurik gabekoa, eta behin batez, Kristo Santuaren eliz atariko hosto lehorrak eskobatzen ari zen bitartean, bada lozorro ibiltari bitxi batean sartu omen zen gure garbitzaile municipal bizkor hura. Eskoba eskutan zuela eta eskobatzeari utzi gabe, muga pasa eta Parisera iritsi zen, pasieran topatzen zituen jendeak harri harri eginda utziz, noski. Eta ba al dakizue nork esnatu zuen gure barrenderoa Luxenburgoko lorategian zebilela?, bada Victor Hugo berak. Bai, Lezoko barrenderoaren bitartez izan zuen poeta frantsesak euskaldunen berri, eta orduz geroz gure laguna egin zen, eta poema bat ere egin zuen mendietako haize erotzailearen gainean. Ixtorio xeblea, dudarik gabe, baina halere gauza bat erakusten digu: gure herria ez dagoela bakarrik bere independentzia eta askatasunaren aldeko borroka egoskorrean».



# EXKIXU

## Txillardegiri



euskal literatura-elaberria

ELKAR

Kuriosoki nahiz eta libretoan honako itzulpen eta antzerkirako egokitze hau azaldu, obra antzeztera-koan eta Lezoko kalegarbitzailearen aipamena egite-koan, beste honako hitz hauek ipini zituzten bere ahoan:

«Bizkaiko eta Gipuzkoako barrenderoek ezker alde-  
rantz eskobaten duten bitartean, Araba eta Nafa-  
rroakoek eskuin alderantz egiten dute. Eta Iparralde-  
koek, zenbaitetan aieka batetarantz, eta bestetan beste  
aiekarantz».

Badirudi, Lezo eta bere inguruek zerbait dakarkio-  
tela burura gure Mark Legasseri, bere beste liburu ba-  
tetan, «Santo Azkarraren Parabola» izenekoan hain  
zuzen beste honako aipamena egiten bait du, Jaizki-  
bel mendiari buruz kasu honetan.

«Jakín ezazue bada, jaun-andreok, moroen lurreta-  
rako bidaia horretan, Iñigo Euskal-Argiak bakarrik  
laguntzen zuela Nafarroako errege. Eta hemen, kon-  
dairak ez du deus ere erraiten Santxo Azkarrak, Iñigo  
eta Iñigoren ahaideak aipatzen dituelarik...»

Abarka erregeren denboran, Jaizkibel gainean bizi  
zen aizkolari baten alaba. Mendipeko oihan buruan  
bazen dorre bat. Abarka horrat heldu zen, otsoen eta  
oreinen lasterkatzerat, gau ala egun, negu ala uda, be-  
ti zaldiz ihizan ibilki, Piko muturratik Oiarsoko por-  
turaino.

Egun batez, iturri baten ondoan gelditu zen edate-  
ko. Orduan neskatxa gazte bat ikusi zuen, uraren gai-  
nerat makurtua.

Hurbildu zen eta neskatxak poliki eskaini pegar-  
tik edan zuen.

Erregea maiz jin zen bertiz ere iturri hortatik eda-  
tera, baina ez baitzekien neskatxaren izenik, Eus-  
kal-Argia deitu zuen, Euskara argi eta garbi mintzo  
zuelakotz. Gero oihan barnean bi amoranteek gogotik  
elgar maitatu zuten gordezka.

Errege urrun zegoen batez, Euskal Argiak haur bat  
ukan zuen. (...)

Baina Lezo eta bere bailara, Legassen inspirazio  
iturria izatetik kanpo, beste zenbait idazleri paperak  
zirriborrazteko beta eman die era berean. Hauxe da  
ere Txillardegiri bere azken elaberrian, Exkixu izene-  
koan, gertatu zaiona. Irakur dezagun:

Errenderia gurutzatu nuen. Ibaitek, beste askotan  
bezala, sekulako kiratsa zetorren. Eta «Irun-Madrid»  
burnibidea, hutsik eta isilik, bertan behera utziz, Lezo  
aldera abiatu nintzen. Mezataran nindoan. Jaizkibel  
neukan aurrean; eta aurrekaldean alimaleko eliza ho-  
riaren figura nabarmentzen zen, bertako zaindari es-  
kerga. (...) Elizaren aurreko aterpetxoan, eta plaza  
osoan, Jaizkibeldik eta Gaintzurizketatik etorririk,  
jazkerak ilun eta txapelak hegazabal, baserritarrak  
ageri ziren nagusi. (...) Ez dakit apaizak zer esan ote  
zuen (...), ez bainintzen ni igande hartan Lezoraino  
joan, inolako sermoi bila. (...). Egia aitortzerakoan  
—eta egin egingo dut— umetango baserri kutsuaren  
atzetik joan nintzen Lezoraino goiz bitxi hartan».

Ikusten denez, Lezok oso inpresio ezberdinak sortu  
egin ditu honera etorri direnen gogoan. Batzuentzako  
lur mixteriotsua eta parabolaren iturria den bitartean,  
besteentzako euskaldun baserritarren babestoki bihur-  
tzen da. Baina, bai batak eta bai besteak, gauza bera  
dakarkigu lezoarren burura: Lezok bizirik dirau, eta  
aurrera darrai. Mintzatzen dira gutaz, modu batez  
edo besteaz, bizi garenon seinale alegia.

**Karloz Barrentsoro**

## O.H.E.-AK GAINTXURIZKETAN

Aspaldiko kontua dugu O.H.E.-ena mundu osoan, eta baita gure Euskal Herrian ere. Objeto Hegalari Ezezagunak (espaineraz O.V.N.I.-ak eta ingeleseraz U.F.O.-ak deituak direnak) danorengandik ezagunak dira, nahiz eta oraindik ez jakin zer diren. Jende askorentzako beste izarbela edo planetatik etorritako hegalontzi tripulatuak dira. Izan edo ez izan, gauza bat edo bestea, prolema da aspaldiko kontua dugula gure artean, baita gure Euskal Herriko zenbait tokitan ere, gure eskualdeko Gaintxurizketa azkenean artean dagoelarik.


Fenomenoaren ikertzaileak betidanik saiatu dira O.H.E.-en agerpenei adierazpen logikoa bilatzen, modu honetan bigarren pausu batean jakin ahal izateko zer den nahi dutena, edo zergatik etortzen diren gure mundura. Behin ikertzaile frantses batek frogatu egin zuen. Frantziako mapa hartu eta horratzez josi, azken agerpenen tokiak seinalatuz. Gauza haundirik ez zuen lortu, egia esan. Baina 1954ko irailaren 17an zenbait agerpen berri gertatu zirenean, mapa hartu zuen berriro, eta horratzen bitartez agerpenen tokiak seinalatu zituen. Harriturik ikus ahal izan zuen puntu guztiak lerro zuzen baten barruan gelditzen zirela. Lerroak Baiona (BA) eta Vichi (VIC) lotzen zituzten gero, BAVIC izena hartu zuen ordu ezkerotik, eta lerro zuzenen bitartez agerpenen tokiak lotzeari ortotenia (lerro zuzenen bitarteko lotzea) deitu zitzaion.

Urte bereko irailaren 24an, sei agerpen berri eman ziren, eta danak lerrotzen ziren aipaturiko Bavic izeneko lerro zuzenean. Segi aurretik, esan dezagun Gaintxurizketako Gaina zuzen famatu horren barruan gelditzen dela.

Bavic Zuzena egin aurretik bazeuden zenbait agerpen gure baiaran, zehazkiago Gaintxurizketan. «Cifra Argentziak honela kontatu zuen 1950ko martxoaren 21ean gertatutakoa:

«Alto de Gaintxurizketa entre San Sebastián e Irún. Dos jóvenes de Irún, cuando regresaban de San Sebastián en bicicleta el 21 de marzo de 1950, aseguraron haber visto un extraño fenómeno que resumieron de la siguiente forma: «Serían poco más o menos las doce y media, cuando después de haber cruzado el espacio un avión procedente de Madrid, vimos aparecer con dirección O-E dos puntos brillantes que fueron aumentando de tamaño. Por su dirección daba la impresión de que iban a caer sobre la sierra cercana; pero a una gran altura, que calculamos en unos 5.000 metros, ganando altura sobre el mar. Los objetos volantes tenían brillo metálico e iban a gran velocidad, que calculamos en unos 1.000 km por hora, ya que su presencia no duró más de ocho segundos».

1954ko abenduaren 6an J.M.P. bizikletaz zihoan Gaintxurizketatik barrena Irun alderantz. Bapatean




bere aurrean argi haundi bat agertu zen, momentuz momentuz haundiagotzen zena. J.M.P. berak honela kontatu zuen prentsarako:

«Empezaba a despuntar el día. La mañana del 6 de diciembre de 1954 amaneció con el cielo cubierto. Llovía. Yo iba en bicicleta, con la luz encendida, por los altos de Gaintxurizketa, bajando a Irún. Frente a mí apareció en el cielo una luz que iba aumentando de tamaño aparentemente. El objeto fue perdiendo altura y simultáneamente perdía luminosidad. Al llegar al suelo la luz se apagó totalmente. El aspecto del objeto era oscuro, su forma un paralelepípedo rectangular de 4x3x6 aproximadamente».

Garaiko prentsak esan zuenez, J.M.P. itzuli omen zen beranduago gertaturiko tokira, eta ikus ahal izan zuen objektua egon zen tokian, errektangulo haundi baten tankera hartzen zuen belar zanpatua. Ba omen zeuden baita ere gizasemearen zenbait urrats, muelle bat eta zenbait hondakin metaliko.

1955ko urtarrilaren 5ean beste antzeko objektu bitxi bat ikus ahal izan zen Gaintxurizketako bailaran. Honako honetan lekuko ugari egon ziren: Felix Galarraga eta Gerardo Irazusta ehiztariak eta Arraspio anaiak. Azken anaia hauen esanaz, borobil eta arras dizdiratsua zen, eta diametrozko hiru bat metrokoa. Jeitsi egin zen, baina egia esan, sekula ez zuten jakin lurra hartu zuen, edo oso hurbil gelditu ote zen. Berehala igo egin zen habaila bortitz batez, Pasai Donibane alderantz, hots Ipar-ekialderantz abiatuz. Garai hortan euskara ez zegoen oso ondo ikusia, eta nahiz eta ehiztariak espaineraz ondo jakin ez, hizkuntza honetan egin zieten elkar-hizketa eta baita prentsan azaldutako testimonioa. Ikus dezagun:



## Iberiar Penintsulako Sare ortotenikoa.

«era una cosa redonda que vimos ¡raaaa! —al decir este sonido onomatopéyico mueve los brazos indicando descenso— cómo bajó de por ahí —señala el suelo en dirección a Irun— y se hizo como apear y estábamos allí y corriendo nos tiramos al suelo... luego nos vinimos hacia esta casa —la conversacion transcurre en el caserío Uralde— dejamos las escopetas escondidas en el puente y ¡raaa! se elevó y se fue hacia Pasajes de San Juan... ¿qué baja por ahí? nos dijimos, y salimos corriendo a ver, pero cuando quisimos acercarnos salió hacia arriba... Cuando nos faltaban 40 o 50 metros para llegar al objeto, cuando se elevó y así nos quedamos mirando... El tamaño era como de una kupela de sidra de 3.000 ó 4.000 litros. Como si sería una cisterna de camión de unos diez mil litros... me quedé asustado de lo rápido que subió hacia arriba... —La observación duro tres o cuatro minutos—».

Agerpen honek zeresan haundiak ekarri zituen, eta oso famatua egin zen Europa osoan. Jendea bildurturik zegoen, eta bat baino gehiago saiatu zen egun haietan ilunpeetan ez pasatzen Gaintxurizketako bi-deetatik. Kasu hau oso haizatua izan zenez gero, Do-

nostia Irratiak irratsaio bat kaleratu zuen Gaintxurizketan gertatzen ari ziren fenomeno bitxiez ohartzeko. Telefono deialdi asko egon ziren, eta hauetako batean Gaintxurizketako harrobian lanean aritutako langile batek, antzeko zerbait kontatu zuen:

«Un anochecer vimos un extraño objeto volador que se acercaba hacia nosotros. Bajó hasta el borde de la cantera para luego volver a elevarse rápidamente y perderse entre las nubes. Era blanco y muy brillante».

Orduetik ez dira agerpen hauek gehiago errepikatu, edo behintzat inork ez deus ikusi, edo ez du deus esan nahi izan. Baina 50.eko hamarkadan gertatutakoak markatu du Gaintxurizketa betirako. Eta bere izena ikusten ahal da mundu osoko mapa ortotenikoetan. Agian egun batean jakin ahal izango dugu zer diren O.H.E. famatu horiek eta zertarako etortzen diren gure planetara. Baina agian, egun berean, Gaintxurizketako agerpenek bere mixterio xarmangarria galduko dute. Denak bait du bere prezioa!

**karlox Barrentsoro**

## IZENA ETA IZANA

Herrien izenak aipatzen ditugularik, lehenengoz hasi behar de esaten herri guztiak izen bat baino gehiago dutela. Herri horrek bere burua izendatzeko erabiltzen duena, eta bestea, ondoko herriek jartzen diotena. Adibide adierazgarri bat: Eskimalek «inuit» dute izena beraien artean eta «gizona» esan nahi du; aldiz, ondoko tribuek eskimal izendatu zuten, «aragi jaleak» hain zuzen. Ikusten denez izenak badu bere baitan herri baten izaeran esanahi handia eta guri dagokigunez berdin hara bestela nondik «euskalduna» (euskara duena) eta Vascoa bestetik.

Honen barrutian mami asko dago, gehiago oraindik kontutan hartzen badugu irabazleek beti erabili izan dutela hizkuntza herri meneratuen nortasuna ezabatzeko eta horren galera adierazteko «Who wants power needs language» esaten du Knapper-ek (boterea nahi duenak, hizkuntza ezinbestekoa du). Hau da, gizarte baten «lehen» hizkuntza, klase nagusiaren hizkuntza izango da, hizkuntza ez baita soilik agintek banatzeko tresna, asimilatze, irensteko tresna baizik, ezen morroiak nagusiaren hizkuntza erabiltzen duenean orduan, eta bakarrik, nagusituko boterea.

Bide luze horretan, hizkuntzaren botereaz jabetzeko bide horretan, badaude ugari egoerak eta gaurko zientziak izendatu egin ditu horietako egoera batzuk. Egun guztion ahotan dugu esannahi zabaleko hitza: Diglosia, baina zer ote? Badago hizkuntzen garapena eta egoera aztertzen duen giza-zientzia eta honela dio diglosiaz: lurralde berean bi hizkuntz desorekatuen (ondo ulerturik) gatazka edo elkar bizitza. Hizkuntza batek ospea eta izena du, bestea aldiz gaizki ikusia eta etxean erabiltzeko da. Honek esan nahi du hizkuntza batek bestea jaten bukatuko duela, hau da, hizkuntza txikia edo gutxiengoren hizkuntza asimilatu egingo duela.

Eta orain ailegatzen gara muinera zeren berez ASIMILAZIOA lortzea beti izan da herri gerlari baten nahia eta helburua. Lurraldea irabazi ondoren nortasuna irentsi behar da. Helburua ez da izango bi herrien arteko berdinketa, noski, baizik eta herri menperatuaren gizaki arteko lokarriak haustea. Horretarako bide bereziak eraikitzen ditu. Hasiko da esaten hizkuntzak ez duela balio, tresna eskasa dela eta ezin duela kultur aurreratuen adierazpideak erabili. Bigarren momentuan esandakoa sinestarazi behar zaio gizarteari benetan kontura dadin zein garrantzia duen hizkuntza «nagusiak», hizkuntza horretan bakarrik izango du ematerik aurrerapen sozialak, hau da, status sozial ezberdinak markatuko duen hizkuntza izango da, jerarkizazio prozesua eraikitzen duelarik, ezen badago esaterik bide batez, hizkuntzaz ernegatzen duen herriak, bere jatorria, bere sustraia eta bere kultura ukatzen duela.



Honek historian zehar adierazpide ugari ditu non herri askoren heriotza, hizkuntzaren heriotzatik datorren.

Eta zein da asimilazioaren aurkako egoera? ERRESISTENTZIA hain zuzen. Asimilazioa sakanatzailea den bitartean —helburua, gizabanako bakoitza bere talde naturaletik urruntzea bait da— erresistentzia integratzailea da eta, funtsean positiboa ezen ingurune naturalera itzultzen du gizakia, ezen zentzu morala itzultzen dio non taldeak bere balioa duen, osatzen duten unitateek adina gutxienik. Asimilazioa beldurra edo ezjakintasunetik sortzen bada, erresistentzia hauen aurkakoa da. Barne konbenzimenduaren garaipena, dignitatearen garaipena. Mendeetan zehar iraun duten herriek (1) (hara hor Islandesak). Honek ez digu harritu behar zeren, nahiz eta herri txikia izan, bere suntsipena suertatzen ez den bitartean, garaile izatera BEHARTUTA dago.

Gaurko honekin bukatzeko aipatutako bi jarrerak gure baitan bilatzea, non errezago uler dezagun. Izan ere Erdi Aroa Nafarroa asimilatzailea dugu eta bitartean Gipuzkoa eta Bizkaiko jaurerriak erresistentzia agertzen dute. Arrazoia nahi agerian dago eta badirudi nahiko nabaria dela Nafarroan emanikako garaipen politikoa arrotza suertatu zela euskal hiztunentzat, euskaldunentzat. Eta suertatutako egituraketa politikoa ez du eraketa carolingioa edo hispanovisigoticoa kopiatzen bakarrik, baizik eta hizkuntza ere —gaztelera eta occitanoa— eta honek ekartzen ditu guztiok dakizkigun ondorioak.

Ederki ageri da historian hizkuntzaren indarra herri baten nortasuna lantzeko, ederki agertzen den bezala hizkuntza gabeko herriak herri kolonizatuak direla, amore eman duten herriek.

(1) Eta azkenik zapaltzaileei makurtu gabe edo batalla bakar bat irabazi gabe garaileak atera diren herriak.

**Tomas Zabaleta**

## GAUA ZEHARKATUZ BAKARRIK HEL ZAITEZKE EGUNSENTIRA



*Nada de acatar y no obedecer,  
hay que atacar lo que no se acata.*

Marc Legasse

Gaueko ilunean bere gorputz nekatua kale ormaren kontra jarrita, hasperen sakon bat egin, eta oka egiteko desio bizia sentitu zuen; erraiak hondatzen zizkion barne ahalezin hori irentsi beharrak min zegion. Ingurunetik guztiz at zirudien; kolore axatutako neoizko argiak, kaleak iluntasun likits batez jantziak; biko-teak bazterretan intziri luzeetan oldarturik mugimendu eroan; atso zaharrak alkoholetan itorik azken mozkorrek mingain kirastunez miazkaturiko hanka tarteko lora usteldua eskeintzen..., eta kaleko orma bakartiak, ilunpe lohi batez blai eginak. Enekok eskua poltsikora eraman zuen eta billete zimur batzu atera. Bapatean, zokoratuak uste zituen ameskaiztoak berriro bururatu zitzaizkion labainkada zorrotzak bailiran: gela txikia, argi gorrixka eta izerdi kiratsa, maindire bustietan bi gizonezko biluzik; agindu bat, billete gutxi batzu... ezpain arrotz haien hezetasun gordina, esku arrotzak praketan, esku bortitzak lepondoan bula-

rrean, iztarretan..., ileak nahastuz, larruazala ikutuz, besarkatuz; ezpain arrotzak ezpainetan, bizkarrean behera abiada bizian mingain lehorrez izterrak besakartuz, urratuz, zaurituz; eta gorputz bi, bata bestearen gainean, bata bestearen preso. Billete gutxi batzu... Pentsamendu guzti hauek itolarria eragiten zioten, lepondoan pixkanaka estutzen zihoakion soka bailitzan.

Gaueko ilunean bere gorputz nekatua kale ormaren kontra jarrita, hasperen sakon bat...; aurreko ezpaloi-ra keinu batzu zuzendu eta bertatik itzal bat gerturatuz doa; Enekok eskua poltsikora eraman eta billete zimur batzu atera eta... papelina bat.

Kontxako hondartza aldera jo zuen; bere argaltasuna, bere ahulezia, Kontxako pasealekuan zehar pauso motelez zeramaten. Tente mantendu nahi, baina bazter guztietan estropozo egiten; ezin zezakeen badiako edertasuna aprezia, itsaskirriaren goxoa. Une horretan postal turistiko guztiak, benetazko Donostiarren alderdi kuttunena, sasi burgesen harrokeria, pikutara bidali zituen Enekok.

*«San Sebastián: ciudad española situada en la costa cantábrica. A finales del s. XIX se convirtió en uno de los lugares de veraneo más import. dentro de España e*

*incluso de Europa. Su paisaje urbano muy en consonancia con su carácter de ciudad balneario de abolengo».*

Eta Eneko balantzaka, oka eginez, itolarri zoroan; Kontxako badiaren erdian... Baina gorputza ezin tente mantendurik gogorki eusten zion eskubiko eskuan papelinari.

Bi gorputz biluziak maindire tartean, bata bestea-  
ren preso, askatasunez beteriko gure gizarte honetan.

Papelina bat, odola besotik behera odolustu arte, gure Donostia liluragarrian.

Billete gutxi batzu hiriaren txukuntasunaz ardura-  
turiko hiritar jator guztientzat.

Eskailerak jeitsi eta hondartzara abiatu zen. Hotza zuen hezurretan, baina itolarriak mugimenduak azkartzera bultzatzen zion; papelina, jeringa, metxeroa... Alferrik badiaren iluminazio bikaina, giroaren atsegina, ilargiaren edertasuna olatuen kulunkan; zertarako balio munduko postal eta imajin eder guztiak papelina bakoitza zainebaki odoltsu batean bilakatzen bada? zertarako esnatu bizitzara billete gutxi batzu bilatzeko soilik baliogarri bazaigu?

Zertarako erregutu, zertarako, borrokatu ez dugunaren preso bagara?

Odolustutze amaigabe hori mantentzea, pizti erdialaren herioa haizeak hara eta hona zabal dezan; alferrik! Hartziko gaztelu zaharkitua entzungor da, ikusgor da.

Baina gaztelu zaharkituari su emaiok, bere sua gorrotoaren suak mendera dezan, suak sua kiskal dezan, itzal dezan, eta gatazkatik itsasaize epelak irensten duen ke hilada xume bat besterik gera ez dadin. Horrela ez bada, gazteluko argiak begiak itxutuko dizkik; ohorezko jaun andereen hitzek entzungor bihurtuko haute. Ilunpeko isiltasunera kondenaturik infernu izango haiz.

Alkondara kendu eta gerriz gora biluzik geratu zen. Bularreko ileak itsaskirri epelaren magalean korapilatzen ziren, baina Enekok hotza, hezurretan kriston hotza, besterik ez zuen antzematen; jeringa hartu eta eskubiko besorantz zuzendu zuen, beldurrez, orratzaren dizdira larruzalean nabaritzean Itxaroren aurpegi irrifartsua burura bait zetorkion, haren ile beltzaren gozotasuna, ezpainen hezetasuna; eta bu-  
ruan nahastu zitzaizkion Itxaroren presentzia soila, bere eskutik helduta ibiltzeak bihotzean eragiten zion uholdea; gau batean hondartzako uretan Itxaroren alkondara xuriaren azpian nola deskubritu zituen bularren borobiltasuna, titi punten gogortasun miresgarria eskuek laztantzean, iztarren kontra, gozamen intziri luzeak ezpainenatik bularretara, ezpainenatik iztarretara, lepondora, ezpainenatik ezpainenara, intziri sakonak.

Eta guzti horretan orratz traidore bat agertu zen; baina Itxarok katea apurtzea lortu zuen, orratz batek sorrarazitako estasian galdu zen itsasoko olatuen kulunkan, itsasoaz bestalderuntz. Desagertu ziren herio garraisiak, billete urriak, gau ilunak.

Oroitzapen atseginak pilatzen ziren Enekoren gogamenean. Itsasoko urek pixkanaka gora zegiten uhinkada ixiletan, oinak belaunak, izterrak eztiki laztanduz. Une horretan gogamena dantzan somatu

zuen haizearen magalean, gogoá beste nonbaitera erratua, agian itsasoaz bestaldean antzematen zituen kantuetara.

*Flores negras en tu corazón  
tapan la luz...*

Emakumezko baten ahotsa. Eta horren arabera ahotsaren gozoa dastatuz —flores negras... tapan la luz...— neska ezezagunaren aurpegiko zeini liluragarriak imajinatu zituen;

*... está lejos el amor  
la lucha, la razón  
y no puedes sonreír...*

ile beltz luzea masailetan behera; ezpain hezeetan ile nahastuak, erdi galduak, mingain puntarekin erdi jolasean; alkondora xuria iztarretaraino, haizearen indarrez mugituz, gorputzaren bazter guztiak bere xuritasunaz eztiki ikutuz, seinalatuz...;

—está lejos el amor, la lucha...— irrifarre ixil bat eta begi lotsatiak. Enekoren garraisi zoroak areagotu dira. Eskuetan, jeringa huts bat; ezkerreko besoa odolztaturik...

*Flores negras sembradas a tu alrededor.  
Flores negras tiradas cerca de tí.*

Zeru urdinean izar galdu bat erori zen tximista bailitzan. Olatuek hondartzan gora ziharduten uhinkada ixiletan —flores negras... a tu alrededor..., cerca de tí...—. Enekok hankak zabaltzen zituen, izatearen mugagabea. Izterrak zabaldu bide zabala, mugagabea, seinalatuz, eta gora eta behera olatuak...; etengabeko plazer orruak, arnasestuka, hezetasuna, zirrara atsegina..., soilik errebelioa.

*Ya no estás aquí  
no puedes volver*

Itsasoko urek gora zegiten; mendeku deiak ugaldut ziren, intziri luzeetan barna, uhinkada goxoen kulunkan, ortzea doinu ederrez jantziz.

*... dejaste la vida*

Hondartzan hilotz bat, jeringa huts bat, eta katea apurtua; —... dejaste la vida— soilik errebelioa... Irain galanta!

*tu guitarra blanca  
dejó de sonar. (I)*

Enekoekin hire hegaldia itsasoko kresalean gorde-  
rik itsasoaz bestaldeko kantuarrekin bat egin arte.

**Altor Sarasola**

(I) «Flores negras». **Ramoncín**

# LUCHAREMOS POR NUESTRA NOCHE DE BLANCAS ESTRELLAS

(I)



Yo soy la presencia que acompaña tus ojos  
cuando tu mirada de blancas estrellas  
se alza de tu interior  
para enarbolar la bandera de la luz;  
la presencia que acompaña tus dientes blancos  
de paz, blancos  
en constante lucha con tus labios  
amenazadores  
rojos de furor, de sangre,

La sangre que se me altera cuando veo  
pasear tu estela blanca  
y veo tu luz,  
luz blanca, contonearse ante la luna.  
Me hechizaste  
con leves caricias y cálidas sonrisas  
en la noche de blancas estrellas;  
y noto el calor de tu luz en mis venas  
noto el chasquido de tu blusa  
ante las manos impacientes,  
bandidas, ladronas,  
que acosan tus blancos pechos  
que se alzan,  
ellos se alzan,  
por encima de..., tan alto como...,  
se alzan  
para enarbolar esa bandera que luce tu corazón  
que yo te robo.

benetan desiatzen dugunagatik  
borroka dezagun.  
Borrokalarari guztiek.

Oigo el chasquido de tu blusa  
oigo el chasquido de tu bandera.  
Te acoso; mi mirada alterada  
mis manos bandidas  
ladronas que roban al día la luz, tu cuerpo  
exhalación de luz,  
aliento virgen que surge de tus dientes blancos, de paz...

Paz que robo;  
tus labios rojos de sangre y furor,  
furor tuyo y mío, labios tuyos y míos,  
rojos de sangre y fuego  
y tu cuerpo se contonea,  
escapa y vuelve, me atrae, me persigue, te persigo,  
y te abrazo  
en un chasquido de blusas y banderas,  
blancas ellas  
y luchamos en el amor,  
porque la lucha es bella, es fuego, es vida.

Tu estela se apaga  
pues de tus labios pasa a los míos  
a mis entrañas;  
a mis venas dilatadas una estela de luz blanca.  
Tu estela se apaga,  
y comienza una noche de sábanas blancas  
que se enredan, se abaten, se rinden  
ante el fuego  
y surge en mi interior una exhalación de luz  
blanca, que calma los mares del deseo  
y deposito tu cuerpo, tu luz, tu sonrisa  
a los cálidos vientos del amanecer.

Estela de luz perdida de mis manos  
presente en mis venas.  
Gracias por dedicarme una sonrisa.


(I) Lan hau tamalez espainieraz bururatu zitzaidan larria bait da gure hizkuntzak jasaten duen eraso.

**Altor Sarasola**

## Adiorik ez Maddi Héguyri

### JAIO ZINEN, SORTU ZINTUZTEN

Han, hemen,  
Euskal Herriko gogoaren  
herri txiki, nekazari, handi,  
tximineta ugaridun,  
herri beltz, zikin, polit,  
sagarrondo inguratutako  
baserri hartan,  
Bulebar ondoko zenbaki  
zenbakigabe batetan,  
papertegiaren tximiniek  
isuritako,  
ke txuriz besarkatua den  
kale zarpail, orma beltz,  
teilatu erdoiladunpean  
Heletako etxe dotore,  
eskuzabal, aberats,  
batetan  
jaio omen zinen,  
sortu zintuzten,  
sortu zintuzten,  
egun hartan, egun ezezagun  
hartan.



### BELARRIRA ESAN ZEN

Maddi, Maddi,  
hira abotsa moteldu dun,  
gauzak behar dira  
belarrira mantso bota.

Badakin, belarri arrotzak  
non nahi hadi, salatari.

— Eta orain zer egin behar da?

— To zak papertxo,  
hor duk asuntua,  
irakurri bezain fite  
erre eta erre kara.

— Eta bihar bihar,  
zer diagu?

— Entzun ezan:

SSSSSSSSSSSSSS, ZAST!

harrapatu, gorde,  
galdetu, eskatu,  
libratu, ahaztu,  
garbitu, agurtu,  
eta kitto!

— Eta etzi?

etzi zer?

— Etzi elkar besarkatu diagu hemen, libre!



## POSDATA

Zure bizitzaren  
azken pausoak  
urrutiko liburu eskutu  
batean, gordeta  
izkribaturik zeuden  
enoratuak zugatik  
zeren gauzak ez dira horrela  
eta horrela balira,... bost ajola!

— Nik neuk aukeratu dut  
neure bidea  
Nik neuk eskegi-  
hodeiartz bat  
nere begien aurrean.

Nire gogoko zaizkidan oskorriaren  
koloreek betetzen dituzte  
zabalkiro nere gelako paretak,  
eta inork ez dit esan behar:  
han daukazu, zoaz bila!  
Haurtzaroa, aspalditik utzi nuen  
lotan amaren magalean  
eta arrazoa nireganatzerakoan  
ez zidaten eskeini  
gizarte justu bat  
trapu zahar ustela baizik  
eta trapu zahar ustel horretan  
eskeintzen ziren abantailak  
ez zuten balio eta baso-txakur  
gosetienaren  
azken hortzari gustoa emateko.  
Ahantz ditzagun beraz,  
eskainitako beherapenak.  
Ez gaitezela erdizka bizi,  
ez ditzagun ogi papurrak onar.  
Gurea osoa izan behar du.

Aspalditik erdizka bizi direnak  
badakite non dagoen,  
zertan datzan osotasuna.  
Ez baduzue lortu nahi  
eguzkiak eskeintzen dituen  
azken printzak,  
bakarrik zera opa dizuet:  
bizi zaitezteela erdizka  
bai-ezean,  
eguneroko sabel loditzean  
burmuinaren kaltetan.  
Gizarte txerri honetan  
txerri gorrixkak izan zaitezketen,  
ahalik eta lodien  
bihar zuen patroien mahaian  
bazka ederra eskein diezazuen.

## ADIORIK EZ

Tren beltz batek,  
patuaren indar beltza  
bezain ankerra  
igaro zen  
zu pausatu  
trenbide oker gainetik.

Ixilik, ixilik,  
heriotza bezain ixilik,  
odoleztaturik.

Zure denbora  
kandela garraren  
azken su-txinpartaren antzera  
ahiturik...  
arnasartze batean,  
une baten finean,  
haize ebakorrak,  
igitaiaren alde  
zorrotza erakutsi.

Zu han zeunden, geldirik...  
ez horren esperoan,  
borrokan baizik.

Zergatik, zergatik,  
zergatik, Maddi?

— Edu Zabala —

«Adlorik ez Maddi Héguyri»!  
(Zenbait olerki)

## “NERE HERRIARI”

### I

Mila urte ta bederatzirehun  
laroegi ta bederatzi  
dozen erdi bat bertso nahi ditut  
Nola edo ala idatzi  
nere barrengo kezka nahi dizkat  
herriari erakutsi  
damu izatea alperrik baita  
gero bihar edo etsi

### II

Inoiz edo behin ni jarritzean  
gure herriari begira  
samintasunez negar malkoak  
etortzen zaizkit begira  
gure baserri zoragarriak  
jetsi zaizkigu erdira  
garai bateko sagasti eta  
baratz ederrak nun dira

### III

Garai batean nekazaritzan  
«Lezo» gendun aberatsa  
arto babarrun sagasti eder  
ta ganadu talde latza  
negargarria urte gutxitan  
egina dezun mudantza  
gaur zoritxarrez nagusitu da  
pabriketako keatza

### IV

Hau ikusi ta kezka beteta  
arkitutzen zait barrua  
era horretan aldatutzeko  
zeinek ote du errua  
nahiz eta egin nunahi pabrika  
gero eta ederragua  
hoietatikan ez dira sortzen  
patata eta porrua

### V

Agintariak entzuten jarrai  
zaitezte unetxo baten  
denok dakigu fundiziotan  
egiñik ez dala jaten  
nekazariak lguntzen hasi  
lanean jarrai dezaten  
kalea ere larrituko da  
lurrak ezpadu ematen

### VI

Lurretik ase ohi dira beti  
gure gose egarriak  
denbora juanta damatu gabe  
hartu ditzagun neurriak  
utzi pabrikak egiteari  
eta zaindu baserriak  
garai batean zuan itxura  
haur dezan gure herriak

“ARGIÑANE”

MARTZELINO LEGORBURU



